

1.PRAKTIKA. TXINAKO UMEZURTZ-ETXEEI BURUZKO DOKUMENTALA

- Zein da Txinako Gobernuak hartutako erabakia? Zergatik?

Seme bakarraren politika jartzen da martxan 1979an: familia bakoitzeko, seme/alaba bakar bat eduki zezaketen. Txinako biztanleria kopurua handiegia zen, lurralde txikiagi batean, eta etorkizunean sortu zitezkeen arazoak aurreikusiz (elikagai ahuleria,...), erabaki hori hartu zuen gobernuak.

- Zein da jarraitzen den esku-hartze mota? Zergatik? Argudiatu.

Jarraitzen den esku-hartze mota negatiboa da, estatuak zuzenean urratzen dituelako gizabanakoaren oinarritzko eskubideak, familiak jarraituz edota kartzelaratu, abortatzera behartuz, edota haien seme/alabak jaio eta berehala erailduz. Eta modu berean, abstentzionismoa ere argi ikus dezakegu. Izan ere, estatuak ez du esku-hartzen umezurtz-etxeetan ematen diren egoera penagarriak konpontzeko: umeak hiltzen uzten dira, elikagaiak ez zaizkie ematen,...

- Generoari dagokionez ze agertzen zaigu dokumentalean? Azaldu.

Emakumearen auziari doakionez, adibidez, jaiotzen den umea gizona bada, ospatu egiten da, eta aldiz, emakumea bada, ospatu beharrean gaitzetsi egiten da. Horrez gain, esterilizatzea inposatzea, aukeratzeko eskubidea urratzen zaie emakumeei.

- Etorkizunean ze eragin izan dezake hain haur gutxi izateak demografian?

Zahar asko egongo dira, eta aldiz, gazteak askoz gutxiago. Beraz, lan gaitasun txikiagoa egongo da eta ondorio zuzena izango du pentsioak ordaintzeko momentuan, ez delako jende nahikoa egongo. , Epe luzera begira, ez da batere eraginkorra, nahiz, nahiz eta epe laburrean kopondu dezaken

- Eta zein eragin izan dezake semeak izatea hobetsi izanak? Azaldu.

Bertako biztanleria muga objetibo abtera iritsiko da erreprodukzioari dagokionean, ez baita pareko egongo emakume eta gizon kopurua, eta gizonak ezin dira beraien artean erreproduzitu. Honekin zuzenki lotuta, emakume gutxi horiek, arriskuan egongo dira, esplotatuak izan daitezkeelako, erreproduzitzeko.

- **Aipatu dokumentalean zehar atentzioa deitu dizun bi esaldi eta bi eszena, bi momentu. Argudiatu.**

Lehena litaik e eszena, non emakume batek kontaktzen duen beste emakume bati bere umea abortatzera behartzen dutela, bere gogoz kontra eta bereziki konduan hartuz 5 egun falta zitzaizkiola erditzeko. Aurreikusgarria izan zitekeen heinean, gogoz kontrako erasoaren ondorioz, emakumeak ezin izan du bizirik jarraitu.

Bigarren pasartearentzat, aukeratuko genuke hasier hasiera. Uste dugu dokumentuaren sarrera nahiko gordinki egiteak aukeraketa interesgarria islatzen duela. Izan ere, hasieratik behartzen zaitu mentalizatzer a zaila izango dela eta azken finean gordintasun honek erakusten du gaiaren bortizkeria.